

# ***Pausoz pausozko metodoa idazketaren irakaskuntzan***

*Carmina Sert*

*Pausoz pausozko metodoari jarraituz gutun informalak nola idatzi deskribatzen du artikulu honek.*

*Ekintza:* eskutitz informal bat idaztea.

*Materiala:* Circles 3 (42-43. orr., a1, b1 eta c ariketak).

*Maila:* Ertaina.

*Helburua:* Liburuko gutun bati erantzutea, aholkuak emanez eta adeitasuna azalduz.

*Erabilitako testu-mota:* Jones andereak, emakume heldua bera, eskutitz bat idazten dio lagun bati bizilagun berrien aurkako arregurak azalduz.

*Hizkuntz puntuak:*

- Adjektiboen erabilera;
- Adjektiboen konparazioak;
- Aholku emateko egitura gramatikalak;
- Eskutitzaren hasiera eta bukaerako kortesiazko formulak.

*Pausoz pausozko metodoa*

Ariketa hau pausoz pausozko metodoari jarraiki egingo da (the process approach).

Claudia L. Keh-ek dioenez, “pausoz pausozko metodoak uneka heltzen dio idazketari. Lehenengo unean, ideiak sortzen dira (hainbat iturritatik eta metodotatik); bigarrenean, zer esan aukeratzeko idazten da, gero lagun batek baino gehiagok irakurketa kritikoa egingo dio idatzitakoari (feedback) eta, ondoren, berridazketaren unea etorriko da. Azken une honetan bakarrik zuzenduko dira gramatikako okerrak eta hitzen egokitasuna”.

Metodoaren eskema, beraz, hau da:

Idazteko ataza: 1. zirriborroa, 1. zuzenketa, 2. zirriborroa, 2. zuzenketa, azken testua.

*Pausoz pausozko metodoaren unekak*

1. *Gaia aukeratu / gaiari buruzko informazioa eskuratu / idazkia zein-nolako irakurlearentzako, zertarako eta nola antolatua izango den erabaki honako eginkizun hauen bitartez:*

- a. Hitz berrien esanahia ondoriotu marrazki batzuk ikusita.
- b. Eskutitzaren edukia aurrean.
- c. Eskutitza arinki irakurri, bertako ekintza batzuk atzeman eta nork burutu dituen jakiteko.
- d. Gutuna egin duenaren erretrato robotta egin idazkia analizatuz, hari zuzenduko baitizkiote erantzunak ikasleek. Une honetan sartuko eta landuko dira adjektiboak eta hauen graduak, osatu beharreko esaldiak dakartzan orri baten laguntzaz.

#### *Adibidea*

Jones anderea bere bizilaguna bezain \_\_\_\_\_ da, zeren \_\_\_\_\_ (Ariketa hau mekaniko hutsa izan ez dadin, ikasleek Jones andeari eta honen bizilagunei buruz diotena esateko arrazoiak azalduko dituzte.)

- e. Gutunaren xedea aurkitu eta antolakuntza analizatu.
- f. Egin beharreko ataza aurkeztu: Jones andeari gutun bat idatziko diote kontsolatzeko eta aholkuak emateko. Ikasleak berak ere bere bizilagunekin (benetako zein irudikatuekin) izaten ditu gorabeherak. Ikasleei gogararazi behar zaie erantzunak Jones andereak egindako gutunaren antzekoa izan behar duela.

#### *2. Lehen zirriborroaren idazketa*

Ikasleek lan hau etxean egingo dute, baina aurreko egunean emandako informazioaz baliatuz.

3. *Lehenengo zuzenketa:* edukiaren ebaluazioa. Ikasleek, hirunaka, beren gutunak elkarri trukatu dizkiote eta, aztertu behar duten gutunari buruz, honako galdera hauei erantzungo diete:

- a. Lortu al du gutunak bere xedea? (Zu Jones anderea bazina, zer irudituko litzaizuke eskutitza?)
- b. Puntu guztiak bete al ditu? (Egoerak konparatu, aholku eman, kontsolatu)
- c. Ba al du gutunak bereziki interesgarri edo dibertigarri iruditzen zaizun zatiren bat, idatzi duenak gehiago lantzea nahiko zenukeena?
- d. Esan gauzaren bat baden ilun geratu dena. Nabarduraren batzuk falta ote dira?

4. *Bigarren zirriborroaren idazketa.* Ikasleek etxean egingo dute lan hau, ikaskideen oharrei jarraiki.

5. *Bigarren zuzenketa.* Berrir ere hirunaka taldetxoak egingo dituzte ikasleek, bigarren zirriborroak elkarrekin trukatu eta aurrez landutako gramatika-puntuak eta hiztegia zuzenduko dituzte. Honako zerrenda hau emango zaie horretarako lagungarri:

- a. Adjektiboen erabilera okerra (ortografia eta adjektiboen osaketa barne).
- b. Konparatiboen erabilera okerra.
- c. Aholku emateko formulen erabilera okerra.
- d. Gutunaren hasiera eta bukaerako kortesiazko esaldien erabilera okerra.

6. *Azken testuaren idazketa.* Aurreko zirriborroak bezala, lan hau ere etxean egingo dute. Horrela, beren idazteko moduari buruzko gogoeta egiteko aukera izango baitute eta hobetzeko estrategiak eskura edukiko baitituzte. Bestalde, irakasleak egin beharreko zuzenketak urritu egingo dira. Ikaslearentzat lana astuna, motela eta zaila da, baina merezi duena emaitzaz ondo baliatzeko modua izanez gero.

*Itzultzailea: Boni Urkizu*

## **Bibliografia**

**Keh, C. L.** 1990. A Design for a Process-Approach Writing Course. *English Teaching Forum*, Urtarrila.

**Bobb, L. et al.** 1990. Circles 2, SGEL.

**Bobb, L. et al.** 1991 Circles 3, SGEL.

**Hedge, T.** 1988. *Writing*. O.U.P.